

2.1

DOCUMENTO _ANUNCIO: IRAGARKIA MUSIKA BEKAK	IDENTIFICADORES	
OTROS DATOS Código para validación: 4E708-G4AQB-Q0ZF2 Página 1 de 2	FIRMAS El documento ha sido firmado por : 1.- Igor Medina Isasa, Alkatea, del Ayuntamiento de Barrundia. Firmado 17/05/2021 11:43	ESTADO <b>FIRMADO</b> 17/05/2021 11:48



Esta es una copia impresa del documento electrónico (Ref: 3873 4E708-G4AQB-Q0ZF2 0378508F88A7E70B90BB70BD0E76D47F6B3B806) generada con la aplicación Informática Firmadoc. El documento está FIRMADO. Mediante el código de verificación puede comprobar la validez de la firma electrónica de los documentos firmados en la dirección web: https://udalnegotza.araba.eus/portail/verificarDocumentos.do?pec\_cod=2&ent\_id=12&idioma=1

BARRUNDIAKO Udala  
(ARABA)



Ayuntamiento de BARRUNDIA  
(ÁLAVA)

## **IRAGARKIA**

2021eko ekitaldirako aurrekontu orokorrean egitaratzeko ural araudiaren IV. eranskinean honako hau azaltzen da:

### **MUSIKA IKASTEKO BEKAK EMATEKO OINARRIAK**

#### **I.- LEGE ETA EKONOMIA ESPARRUA.**

Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorrak, azaroaren 17koak, horrela definitzen ditu diru-laguntzak: Administrazioak pertsona publiko eta pribatuei ematen dien dirua, betiere honako baldintzak betetzen badira:

- Hartzailearen kontraprestazio zuzenik ez izatea.
- Helburu jakin bat betetzeko, proiektu bat gauzatzeko, jarduera bat burutzeko, jarrera berezi bat hartzeko edo egoera bereziren bati aurre egiteko bideratuta egotea (egina edo egiteke), betiere, hartzaileak aurrez ezarritako betebeharrak material edo formalak konplitu beharko dituelarik.
- Finantza proiektu, ekintza, jarrera edo egoera horren helburua izatea erabilera publikoko eta interes sozialeko jarduera bat edo helburu publikoren bat sustatzea.
- Aipatutako 38/2003 Legearen 9. artikulua xedatzen du, diru-laguntzak eman aurretik, emakida arautzen duten oinarriek ezarritako arauak onartu beharko direla, Legez ezarritako terminoetan. Oinarri hauen helburua da Barrundiako udalerrian musika ikasketetarako beken emakida-esparrua arautzea.

#### **II.- BALDINTZA OROKORRAK.**

2.1.- Barrundiako udalak beka emango dizkie honako musika-ikasketak egiten dituzten adingabe guztiei, baldin eta Barrundian erroldatuta badaude: 1. mailako irakasgaiak, musika-hizkuntza, instrumentua, armonia modernoa, instrumentu-taldea edo comboa, ahots-taldea eta irakaskuntza indartua edozein "Udal Musika Eskolatan".

2.2.- 2020-2021 ikasturteko ekitaldian zehar (2021eko irailaren 1era bitarte) egindako ikastaroen arabera onartuko dira beka eta honako terminoetan eskainiko da diru-laguntza:

.- Musika Eskolako titularrak likidatutako kuotak, kontuan izanik bekaren zenbatekoa erroldatu eta erroldatu gabeko arteko kostu diferentzialaren %100ekoa izango dela.

#### **III. BALIZKO HARTZAILEEN DEFINIZIOA.**

3.1. Musika ikasketetarako beken hartzaileek baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Laguntzen eskatzaile eta balizko hartzaileek 2020ko urriaren 1aren aurretik

Barrundian erroldatutako familia-unitateko kide izan beharko dute.

Deialdiaren ondorioetarako, familia-unitatea izango da honako multzoetako batean kokatzen dena:

- a) Ezkontideek eta 2.1 oinarrian aipatutako mailetan matrikulatuta dauden adingabeko seme-alabek osatua.

DOCUMENTO _ANUNCIO: IRAGARKIA MUSIKA BEKAK	IDENTIFICADORES	
OTROS DATOS Código para validación: 4E708-G4AQB-Q0ZF2 Página 2 de 2	FIRMAS El documento ha sido firmado por : 1.- Igor Medina Isasa, Alkatea, del Ayuntamiento de Barrundia Firmado 17/05/2021 11:48	ESTADO <b>FIRMADO</b> 17/05/2021 11:48



Esta es una copia impresa del documento electrónico (Ref: 3873\_4E708-G4AQB-Q0ZF2\_037B5D8F88A7E70B908B70B00EE76D47F6B3B8D6) generada con la aplicación informática Firmadoc. El documento está FIRMADO. Mediante el código de verificación puede comprobar la validez de la firma electrónica de los documentos firmados en la dirección web: [https://udalenegetza.araba.eus/jportal/verificarDocumentos.do?pos\\_cod=2&ent\\_id=12&idoma=1](https://udalenegetza.araba.eus/jportal/verificarDocumentos.do?pos_cod=2&ent_id=12&idoma=1)

BARRUNDIAKO Udala  
(ARABA)



Ayuntamiento de BARRUNDIA  
(ÁLAVA)

- b) Bikote egonkorrek (legedia espezifikoaren arabera) eta matrikulatuta dauden adingabeko seme-alabek osatua.
- c) Legezko bereizketa kasuetan, edo ezkontza-loturarik ez dagoenean, edo bikotekide egonkor zein bizilagunik ez dagoenean, amak edo aitak eta 2.1 oinarrian aipatutako mailetan matrikulatuta dauden adingabeko seme-alabek osatua.

3.2. Laguntza-xede den adingabeko ikaslearen ama, aita, tutorea edo haren zaintza eta babesaren arduraduna izango da eskatzailea.

#### IV.- 2021EAN MUSIKA IKASTEKO BEKEN GEHIENEZKO ZENBATEKOA ETA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA.

4.1.- 2021erako esleitutako beken zenbatekoa, guztira, ezin izango da 5.000,00 €-tik gorakoa izan. Epe barruan aurkeztutako eskarien arabera, diruz lagundu beharreko gehienezko zenbatekoa hartarako aurrekontuaren gordailua baino handiagoa bada, laguntza bakoitzaren gehienezko zenbatekoa murriztu egingo da, aurrekontu-gordailuak estali ahal izateko moduko portzentajea.

4.2.- Eskaria eta dokumentazioa 2021eko urriaren 31 baino lehen aurkeztu beharko dira Barrundiako Udalaren Erregistro Orokorrean.

4.3.- Hartzailleak honako dokumentazioa aurkeztu behar du:

- Musika ikasketetarako beka eskariaren inprimakia.
- Udal Musika Eskolako Zuzendariaren ziurtagiria, ikaslearen ikasturteko aprobetxamenduari buruzkoa.
- Eskatutako bekarakin eta izan litezkeen beste batzuekin gain-finantzaketarik izango ez dela jasotzen duen zinpeko adierazpena.
- Hirugarrenaren alta-inprimakia behar bezala beteta, beka lehendabizikoz eskatzen bada edo zenbatekoa kontu-korrente berri batean sartzeko eskatzen bada.
- Zergen eta segurantzaren sozialaren betebeharrak betetzen dituenaren zinpeko adierazpena.

#### V. LAGUNTZEN TRAMITAZIOA.

Kultura Udal-zerbitzua arduratuko da Oinarri hauetan araututako beka eskariak tramitatzeaz eta organo eskudunari esleipena proposatzeaz, hala badagokio.

Denen ezagutzarako argitaratzen da.

ALKATEA